


Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Aurtengo
San Juan jaietako
kartel irabazlea

2017ko ekainaren 2a, 526 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

SANJUANAK 2017

‘Andoain Esan’ ekimenaren festa larunbatean, Zumea plazan

Helburutzat jarritako sinadura kopurua lortu nahi dute hurrengo egunetan.

Erabakitze eskubidearen aldeko **Andoain Esan** ekimenak ospakizuna iragarri du, larunbat honetarako. 12:00etan hasita Zumea plazan *pa amb tomaca* eta gazta pintxoak eskainiko dituzte eta **Malkogarriyak** taldeak musika eskainiko du. Horrez gain, **Maizorri** txalaparta taldekoek txalaparta ikastaro laburra eskainiko diete interesatuei.

Andoain Esan taldeak apirilatik 22tik hona mila sinadura bildu ditu eta jada aurtengo azaroan egin nahi den galdekarako beharrezkoak dituen bi



Andoain Esan ekimenaren aurkezpen ekitaldia Goikoplazan, Joan zen apirilean.

herenak lortu ditu. Eskertza adieraztearekin batera, gehiagoren premia agertu dute prentsa ohar bidez: “Orain artean sinatu dutenei eskerrak ematearekin batera, oraindik bere si-

nadura eman gabe zaudeteno Kaleberrian zabalik dagoen lokaletik pasatzera animatzen zaituztegu, edo bestela kaleko hainbat puntu desberdinetan jarritako duten mahaietan. Si-

Andoain Esan taldeak apirilatik 22tik hona mila sinadura bildu ditu. Helburua lortzeko herena falta zaio

nadura ematea garrantzitsua da, zeren eta horren bidez herri galdeketa egiteari bidea irekitzen zaio. Sinatzeko baldintzak honakoak dira: 2017ko azaroaren bosta baino lehenago 16 urte beteta izatea eta Andoainen erroldatuta egotea. Sinatzea demokrazia zuzenaren lehen pausoa da, gerora dator galdekarako adostu beharrezkoa: Galdera”. Hirugarren pausoa bozkatzea izango da, aurtengo udazkenean.

Zegama-Aizkorri



Oier Escudero andoaindarrak Kilometro Bertikalean parte hartu zuen.

Kilometro Bertikalean eta mendi maratoian Andoaingo eta Urnietako kirolariek hartu zuten parte, joan zen asteburuan.

[KIROLAK, 11.ORRIALDEA]

Haurren euskal jaialdia

[AGENDA, 12.ORRIALDEA]

Iturzaeta memoriala

Ostiral honetan, 19:30ean hasita, Iturzaeta memorialeko emakumezkoen ligako azken partidak jokatuko dituzte. Igandean, berriz, mutilen final laurdenak, eta nesken finalaurrekoak eta finala jokatuko dira. Partidak arratsaldeko 16:00etan hasiko dira. Adi egon daitezela aurtengo parte hartzaileak, pala afari apustua nork jokatu igande arratsaldean erabakiko baita zozketa bidez.

Nerabeak eta teknologia digitalak hizpide Andoainen eta Urnietan

“Nerabeak eta teknologia digitalak: erabilera arduratsu baterako bidean” izenburupean, datorren astean hitzaldiak.

Andoaingo Basteron ekainaren 7an, eta Urnietako Lekaion ekainaren 8an, bi herrietan ak-

tualitate garrantzia handiko gaiari buruz jardungo dute **Jon Altuna** eta **Nere Amenabar** Fishernet Hezkuntza-Teknologia EHUko irakasleek. Batik bat guraso eta hezitzaileei zuzendutako hitzaldia da. Bertan azalduko dituzten ideien laburpena aurreratu nahi izan dute: “Teknologia digitalen erabilerak, abantaila ugari

ekartzeaz gain, arrisku batzuen aurrean jartzen gaitu, ezinbestean, esate baterako: Ciberbullying-a, Sextinga, edo Grooming-a, besteak beste. Teknologiaren erabilera desgokiei buruz hainbat ikerketa egin ondoren, jakin badakigu nerabe batzuk bereziki kalteberak direla arrisku horien aurrean, batzuetan arauak bete

gabe eta erabilera-gomendioei kasurik egin gabe aritzen direlako. Horregatik, behar-beharrezkoa da guraso eta hezitzaileok esku hartzea, era hezitzailean, gazteek eta nerabeek Internet eta sare sozialak arduraz erabil ditzaten lortzeko”.

Ekainak 7, osteguna. 19:00. Andoain.
Ekainak 8, ostirala. 18:30. Urnieta.

Osteguna
2017
06
08
Lekaio
Kultur Etxea
18:30
sarrera dohainik

#Instant1ean

KULTURA DIGITAL@

Nerabeak eta teknologia digitalak: erabilera arduratsu baterako bidean

Hitzaldia

Hizlariak:
Nere Amenabar
Jon Altuna
UPV/EHU.
Fishernet
Hezkuntza Teknologia Taldea.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoako Foru Berantza
Gipuzkoako Foru Berantza

GAZTERIA

GAZTE FESTAK 2017

Egape DT eta Pausoka pailazoeekin taula gainean

Gazte Festak aurtengoan pailazoen emanaldiarekin abiatu ziren. Iñistorra euskaltzaleen biltzarrak antolatu zuen, Aiurriren lankidetzarekin eta Urnietako udalaren babesarekin. Haurrek gozatzeko

moduko ikuskizuna eskaini zuten beste behin ere Pirritx, Porrotx eta Marimototsek. Festa borobila izateko, Egape dantza taldea eta Pausoka elkarteak igo zituzten taula gainera.



Pausoka elkarteko haurrak eta gurasoak pailazoeekin batera, saioaren amaiera aldera.



Egape dantza taldekoak ikuskizunaren parte bilakatu ziren. Zirkorrika kantua eskaini zuten, gainera.



Laurehundik gora ikusle bertaratu zen Egape ikastolako jolastoki estalira.



Euskara ardatz duen ikuskizuna eskaini zuten pailazoeek Urnietako Egape ikastolan.



AIURRI

EGUNEROKOAREN
JARRAIPIEN
ZEHATZA
WEBGUNEAN



GAZTE FESTAK 2017

Euritan dantzan



“Zirkorrika” kantuaren koreografia, Egapek ikasturte honetan sortu duen dantza ikusgarria.



Udal ordezkariak jaien hasierako suziria bota zuten udaletxeko balkoitik.



Bosko Anitz txarangak euritik Kontzejupean babestu behar izan zuten, euriagatik.



Erraldoi eta buruhandien konpartsa, Bosko Anitz txarangarekin batera, kalejirari ekin aurretik.

SUPERMARIMORE ETA GAINERAKO SUPER HEROIAK GAZTE AFARIAN



Gazte Afaria super heroien bilgune bilakatu zen. Heroi gehienak ezagunak ziren, baina ezustea Urnietan bertan sortutako heroiek eman zuten. Supermarimorrek, hain zuzen. Egape ikastolan bildutakoek dantzarako eta festarako dohain bereziak erakutsi zituzten.

GAZTE FESTAK 2017

Hamaikagarren edizioa

'Urnieta Dantzan' euskal dantzari eskainitako jaialdia da, Egape dantza taldeak urtero antolatzen duena. Jaietan edizio berria antolatu zuten. Oraingoan urnietarrak izan ziren protagonista bakarrak.

ZOKKETA: Joan zen larunbatean Amatiko basoan "Basoa-Suite"n egonaldiaz gozatzeko bi sari zozketatu zituzten. Zenbaki sarituak hauek izan dira: 1263 eta 1610. Saridunak dagoeneko agertu dira.



Guraso, senide eta lagunez bete ziren harmailak, larunbat eguerdian.



Goizean kalejira egin eta gero, saio nagusia Plazido Muxika plazan eskaini zuten.



Balearena, Agurra,... dantza ezberdinak eskaini zituzten gaztetxoek.



Gaztetxoak, dantzan hasteko prest.



Agazki-bilduma eta bideoak Aiurri.eus gunean ikusgai daude.



Edu Muruamendiarek maisuki bideratu zuen saio nagusia. Irudian eserita ageri da, argibideak ematen.

GAZTE FESTAK 2017

Urnieta, dantzaren herria

Kaledantza ekimenaren bitartez, dantza kalera atera zuten. Herri-tar orori irekita zegoen ekimena, Edu Muruamendiarezek maisuki bideratu zuena.

Dantza ezberdinak eskaini zituzten, eta irudian ikus daitekeenez, adin guztietako partaideak dantzan aritu ziren. Larunbat arratsaldea girotzeko ekimen polita izan zen.



María Sandonis eta Garazi Mujika ama-alabak.



Olatz Iturzaeta eta Iraitz Garcia.



Edu Muruamendiarez eta Luar Nielfa.



María Muro, Markel Azkarate lehengusuarekin.



Ane Loinaz eta ConchiRodriguez.




Amaya Vaquero eta Naiara Alkorta.

GAZTE BAZKARIA ETA ELEKTROTXARANGA LARUNBATEAN



Poxta Zahar elkarteak esker ona adierazi die Gazte Festetan parte hartu dutenei: "Inoiz baino biziago gaudela erakutsi dugu asteburu honetan. Ostiraleko Gymkanan bildu zen jendetza, edo larunbateko bazkarirako mahairik gabe gelditzea horren lekuko garbiak dira. Gure eskerrik beroenak festan parte izan zaretzen herritar guztiei! Egapeko kontzertuetan zein kaleetan zehar asteburua alaitu zigutenei ere gure eskerrik bero eta goxoenak". Larunbat honetako paella jatea bertan behera utzi dute, Gazteizko Errekaleorren aldeko manifestaziora joateko.

Itxuraldaketa parkean



Maximo Yurramendi kaleko parkea.

Karmele Gorroño Idirin eta Irene Gutierrez Irureta artistak Maximo Yurramendi kaleko parkearen itxura berri-tzeaz arduratu dira. Biak ere

Urnietako Udalak herriko kaleak bizitzeko eta bertako merkataritza sustatzeko lehiaketaren irabazle izan ziren.

Udako ikastaroak

Kiroldegian eta Saroben eskainiko dituzten udako ikastaroetan izena emateko epea ekainaren 16ra bitarte zabalik izango da.

ESKAINITZA KIROLDEGIAN:

- Igeriketa 1. maila (-6).
- Igeriketa 2. maila (-6).
- Igeriketa 3. maila (+6).
- Tenisa (+6).
- Patinajea (+6).
- Spinninga (+14).
- Zumba (+14).

Interesa dutenek Bertan bulegoan edo udal kiroldegian eman dezakete izena. Ekainaren 10ean hasiko da kiroldegiko udako denboraldia.

IGERILEKUETARAKO BONOIA

Udako kanpaina osorako ba-

lio dute eta bi eskaintza dau-
de: banakako bonoa, 51 eurokoa, eta familia bonoa, 102 eurokoa. Txartel horiek kiroldegian eskura daitezke, eta Urnietako igerilekuetan bakarrik erabil daitezke. Era berean, igerilekura sartzeko bakarrik balio dute, ez kiroldegiko beste guneetara.

UDAKO ORDUTEGIA

Kiroldegia:

- Astelehena-ostirala: 08:30-22:00.
- Larunbata, igandea, jaiak: 09:00-21:00.

SAROBKO IKASTAROAK:

- Pilates jarraipena.
- Pilates hastapena.
- Gazte funky (+16).
- Gazte funky (12-15).

Denda Berriren kultur astea, hilaren 16an hasita



Ekainaren 16an hasi eta 23ra bitarte Denda Berri elkarteak hainbat kultur jarduera antolatuko du.

Ekainak 16, ostirala:

17:00 Toka eta mahai-jokoen txapelketa.

Ekainak 17, larunbata:

18:00 Iribarren orkestrarekin dantzaldia.

Ekainak 18, igandea

08:00 Milagros herriko Gezezi egunera irteera. Bazkaria Montecillo jabetxean.

Hitzordu gehiago, 23ra arte.

Antia literatur lehiaketaren sari banaketa ekitaldia Saroben.

Euskal literatura sustatzeko sari potoloak



Karmele Mitxelena, Arixen Unanue eta Maialen Gonzalez lehiakideek eskuratu dituzte aurtengo Antia literatur lehiaketako lehen sariak. Sari banaketa ekitaldia ikuskizun bilakatu zuten, Anjel Alkainen parte hartzearekin.

EPAIMAHAIAREN ERABAKIA:

Helduen kategorian:

- Lehen saria (1.800 euro): **Karmele Mitxelena Etxebeste.** "Hil egingo zaitut".

- Bigarren saria (1.000 euro):

Igor Mercado Azcuenaga. "Dirua ez zen arazo".

Gazteen kategorian:

- Lehen saria (600 euro): **Arixen Unanue Usabiaga.** "Amara".
- Bigarren saria (360 euro): **Ainara Isasti Aranburu.** "Opari guztietan ederrena".
- Hirugarren saria (200 euro): **Maria Muro Vaquero.** "Ezer gertatuko ez balitz bezala".

Haurren kategorian:

- Lehen saria (tablet bat): **Maialen Gonzalez Garcia.** "Antzerki gelako misterioa".
- Bigarren saria (ebook bat): **Maria Sanchez Guardado.** "Itsaslamaren istorioa".
- Hirugarren saria (ebook bat): **Mikel Urdampilleta Gomez.** "Martinen bidaia".

Sari potoloak, beraz, Udalak eskaintzen dituenak.

ESKOLA AGENDA 21



Herri jasagarriaren bidean herrian diren milatik gora ikasiek parte hartze aktiboa dute. Udalari proposamenak luzatzen dizkiote. Iaz, esaterako, Udalak herriko puntu beltzak argitzeko egitasmoa landu zuen jasotako ekarpenei esker.



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Agenda 21 ekimenaren ekitaldia Kontzejupean

Etorkizuneko Andoain irisgarriaren alde

IKASLEEN HAUSNARKETA

Andoain aisialdiaren ikuspuntutik landu zuten Ondarreta, Larramendi Ikastola, La Salle-Berrozpe eta Leitzarango ikastetxeetako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxillergoko ikasleek, eta hilabeteetan luzatu den lanketa horren emaitza idatzita eraman zuten Kontzejupeko ekitaldira. Jolaserako eremuen irisgarritasuna, jolasgarritasuna eta segurtasuna aztertu dute.



ADINEKOEN PROPOSAMENAK

Eloi Artolazabalek ekitaldian azaldu zuenez, "Andoingo esparruan bertan ibiltzeko ibilbide motzak eta luzeak prestatzen ari gara. Bi helburu bete nahi ditugu: batetik, adineko jendea etxetik atera eta ibil dila, osasungarria baita ariketa fisikoa egitea. Bestetik, ikuspegi soziala eman nahi diogu ekimenari; alegia, ibiltzera doan jendea elkartzera bultzatu nahi dugu, harremanetan jarri eta solaserako tartea eduki dezala. Oso erraza izango da ekimenaren mekanika. Nahikoa izango da seinalatzen diren egunetan Goikoplazara hurbiltzea eta

bertan izena ematea prestatu den ibilbidean parte hartu ahal izateko. Ibilbide bakoitzak bere arduraduna izango du. Herriko pertsonak edo elkarteak izango dira egun horretako antolatzaileak. Jada asko dira konpromiso horretara lotu direnak".

DUNAK TALDEA

Dunak arkitektoen elkarteak hainbat proposamen aurkeztu zituen. Udalak elkarte honi aurreproiektu bat egiteko eskatu zion eta honek herriko bost espazio publikoei begirako proposamenak egin zituen.

- Kiroldegiaren aldameneko belazea: Skate parkea.

- Bekoplaza: Egurrezko eserleku eta mahaia jarri eta plazaren eta ibaiaren artean ibilbidetxo bat egokitzea, garbitokiraino.
- Doktor Huiziko parkea: Egurrezko eserleku eta mahaia jartzea, eta autoen zarata ekiditeko horma jartzea.
- Miranda pasealekua: Estalkia jartzea eguraldi txarra denerako.
- Leizaur parkean: Patinatzeko zorua berritzea.

Ana Carrere alkateak hausnarketa eta ekarpenak ahal duen neurrian aurrera eramateko konpromisoa hartu zuen.

Aurreko osteguneko Udal batzarraldian onarpena eman zioten

Bi milioi euro, hamaika inbertsiotarako

Andoingo Udalak aurreko osteguneko batzarraldian oniritzia eman zion inbertsio zerrindari.

Ia bi milioi euro dira, 2016ko gerakinetik eta eskuratutako maileguaren zati batek eratorritakoak.

INBERTSIO ZERRENDA:

- Kale garbiketarako ibilgailuaren erosketak. 285.000 euro.
- Makaldegian WC publikoa. 65.000 euro.
- Kale Nagusian ur hoditeriaren aldaketa. 900.000 euro.
- Udal artxibo berria egiteko obrak. Anbrosia Olabide eraikin publikoko sotoa eraberrituko da bertan Udal Artxibo berria kokatzeko.

512.000 euro; horietatik 312.000 euro bideratuko dira aurtengo aurrekontuaren kontura.

- Haur parkeak. 100.000 euro.
- Hilerriko lanak. 100.000 euro.
- Eskola kaleko estolda eraberritzea. 80.000 euro.
- Proiektu eta ikerketa berriak. 150.000 euro.

Hainbat gehiago:

- Irisgarritasuna bermatzeko obrak. 50.000 euro.
- Herri bideen konponketarako. 80.000 euro.
- Trenbideko tiketaren etxola egiteko. 10.000 euro.
- Hezkuntza eraikin ezberdinetan hobekuntza lanak. 20.000 euro.

- Haurtzaindegian hobekuntza lanak. 20.000 euro.
- Etxebizitza publikoen konponketa. 50.000 euro.
- Doktor Huizi kaleko parkea. 50.000 euro.
- Hondakin sistemaren garapena. 10.000 euro.

IKA-MIKA UDAL BATZARRALDIAN

Gardentasun falta leporatu zion PSEk EH Bilduri, eta kale garbiketarako ibilgailuaren erosketaren aurka agertu zen. EH Bilduk gardentasun falta hori ukatu zuen, sozialistei kritikarako zehaztasun falta leporatu. Gobernu taldeko bozeramaileak batzordeetan egingo dako lana defendatu zuen. PSEk, ordea, protesta gisa batzar aretoa uztea erabaki zuen.

Ekimen bikoitza indarkeria matxistaren aurka

Indarkeria matxistari aurre egiteko **Andoingo Udalak** bi ekimen jarri ditu martxan azkenaldian, eta horien berri eman du egunotan.

egoera horien prebentzioa eta arretoa lantzeko, eta erakundearen arteko protokoloa martxan jartzeko.

UDALEN SAREA, EUDELEKIN

Erakundearen arteko elkarlana errazteko asmoz, Udala Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Euskadiko Udalen Sarearen partaide egin da. Helburua Tokiko gobernuek kudeatzen dituzten programa eta zerbitzuak koordinatzea da, **Eudelen** babespean.

DIAGNOSTIKOA

Andoingo udalerrian ematen den indarkeria sexistaren errealitatea eta beraren inguruan dauden iritziak biltzea eta azalartzea izango da diagnostikoaren helburua. Biontzia kasuen datuak, iritziak eta eginbeharrak identifikatuko dira, etorkizuneari

Lore azokaren edizio berria



Lore eta landarez gain, produktu naturalak erosteko aukera izan zen.

Lore eta Landare azokaren edizio berria antolatu zuten elkarrekin Udalak, Behemendik eta Salkinek. Juanita Alkain plazatzon haur jolasak,

loreak eta landareak eta bestelako produktu naturalak eskuratzeko aukera izan zen goiz osoan zehar. Salmenta ez zen handia izan, zorritzarrez.

Gora Kaletxikiren emanaldia



Errepertorio zabala eskaini zuten Egiako elizan.

Donostiako Egi auzoko Kostkas elkarteak bere 50. urteurrena ospatu zuen ostiralean, Egiako Andre Maria Erreginaren elizan egin zen kontzertu bereziaren eskutik, eta bertan parte hartu zuen Gora Kaletxiki txarangak Joxe Mari Oartzabalaren zuzendaritzapean. Andoingo txarangak biziki txalotutako kontzertua eskaini zuen Herriko Ozenki abesbatzarekin eta Doinu Zale orkestrarekin batera.

Errepertorio anitza entzun ahal izan zuen entzulegoak, besteak beste, *Xalbadarren heriotzean*, *Eperra*, *Lau teitatu*, edota Oartzabalaren sortutako *Joxe Ramon* eta *Antzizar* kantuak.

Egiako kontzertua atzean utzi eta jada Kaletxikiko jaiei begira jarri da txaranga, kontzertu berezia eskaintzeko baitu bertan, bere kideirik bateranoena duen Luxio Aranburu omentzeko asmoz.

KATRAMILA ANTZERKI TALDEAREN ERAKUSTALDIA

Katramilako helduen eroaldia eta gaztetxoek super botereak

Antzerkiari loturikoa izan zen hein handi batean, aurreko asteburua. Katramila antzerki taldeko helduek ostiral iluntzean ikasturte osoan zehar landutakoa erakusteko aukera izan zuten, Bastero kul-

turgunean. Biharamunean haur eta gaztetxoek txanda iritsi zen. Tartean, Zumea plazan eta Bastero plazan kale antzerki emanaldiak antolatu zituzten eta baita lagunarteko bazkaria ere.



Miren Gojenola aktore eta zuzendari ezagunaren esanetara lanean jardun dute ikasturte honetan.



Keinu bidezko antzezlanak eskaini zuten ostiral iluntzean.



Irudian agertzen den esketzarekin amaiera eman zioten emanaldiari.



Talde guztiek, aurtun, super botereen gaia landu zuten.



Saioaren amaieran taula gainera igo ziren protagonista guztiak.



KIROL ALBISTEAK

Kirol egokituaren jaialdia

Aurreko larunbatean Goikoplaza lehen mailako joko zelai bilakatu zen, ehundik gora kirolariren gozamenerako. Saskibaloia, pala, futbola..., kirol egokituaren jaiak aukera asko eskaini zuen. Hori guztia

antolaketa bikainari esker lortu zen. Batzokiak, Allurralde Kirol patronatuak eta Kirol egokituaren federazioak lan handia egin zuten jaialdia antolatzen, herriko hainbat elkarterekin lankidetzan.

Kirol egokituari ez zaizkio plaza askorik eskaintzen, baina Andoainen behintzat urteak dira txirrindularitza egokituari tartea eskaintzen zaiola. Aurten, ordea, Batzokiak eta Kirol egokituaren federazioak elkarlanean jaialdia osatzea eta aberastea erabaki zuten. Horrek, ondorioz, lana biderkatzea ekarri zuen. 60 bolondres aritu ziren lanean, kirol jaialdia modu egokian igarotzeko.

Gurutz Irigoras antolatzailea pozarren zegoen, astelehen arratsaldean Euskadi Irratian Ainhoa Etxebeste kazetariari eta Aiurriko Jon Ander Ubedari egindako adierazpenetan: “Oso pozik gaude, lan asko dago honen guztiaren atzean. Isilean eta pixkanaka-pixkanaka eginez, lanak bere fruituak ematen ditu. Egun pozgarria izan zen denentzat, bereziki



Batzokiak elkarteko kideak, Saskibaloia eta pala finalistak eta Ana Carrere alkatea.

“Egun pozgarria izan zen denentzat, bereziki kirolarientzat”

Gurutz Irigoras

kirolarientzat. Denak gustura zeuden. Bizikleta munduari lotuta ibili gara, eta aurtengoa berria izan da. Euskalduna, Ganbara edota Gaztelekuk laguntza handia eman digute”. Kirolari eta prestatzaileen aldetik esker ona jaso zuten egunean bertan, eta Irigorasek aurreratu zuenez dagoeneko 2018ko edizioan pentsatzen ari dira: “Balorazio bilera egin behar dugu eta ia-ia aurreratuko nizuke datorren urteko plana. Dagoeneko zein kirol jarduera berri erantsi pentsatzen hasita gaude”.



Goikoplazan futbol eta saskibaloia partidak jokatu ziren. Eta, nola ez, palak bere tartea izan zuen.



Saskibaloia partida Goikoplazan. Partida zuzentzen Ganbara saski taldeko Angel aritu zen.



Antolatzaile, laguntzaile, kirolari..., lagun askoren lanari esker antolatu zen jaialdia.



KIROL ALBISTEAK

Jokin Jimenez: "Balantzea oso ona da"

Hamar egun pasa dira UKE eskubaloitako taldeak igoera ligatxoak bukatu zuela, eta play-offa jokatzeko aukerarik gabe geratu zela. Sopolako porrot argiak atsekabea eragin zuen taldean, baina bere entrenatzaile

Jokin Jimenezek balantzea ona izan behar duela dio: "Denboraldi hasierako helburua gainditu dugu, eta herrian orain arte inoiz ikusi gabeko zale mugimendua sortu da. Jarraipena eman behar zaio".

Balantzerik egin al duzu egun hauetan?

Bai, ona da. Helburua iazko 6. postua berdintzea edo hobetzea zen, eta Gipuzkoako txapeldunordeak izan gara. Ligatxoan ezin izan genuen lau onenen artean sartu, eta Ligan gu garaitu ez gaituzten taldeak, Ereintza kasu, 2. Nazional Maila jokatzeko sailkatu dira. Une jakinetan akats larriak egin ditugu, ziurrenik eskarmentu faltagatik, eta hori garesti ordaindu dugu. Eskarmentu falta, jokalariena eta talde teknikoarena, baina. Bizkaiko bi irteerak txarrak izan dira. Sestaon azken segundoa galdu genuen, eta Ugeragan, ez zen gure eguna izan, eta horrek aho zapore garratza utzi digu.

Agur mingarria izan zen, Sopolakoa.

Bai, oso, batez ere Errenterian garaipen bikaina lortu eta azken bi partidak galdu genituelako. Etxekoa, gainera, harmailak lepo zeudelako, Ordiziaren aurka. Zorte txarra izan dugu, Ugeraga azken jardunaldira aukerekin iritsi zela. Partida bikaina egin zuten eta guk txarra.

4 puntu eta 5. postua. Latza.

Bai, baina horrela izan da. Sestaoko azken orduko porrotak erabaki du gure kanporatzea.

Herriaren erantzuna, bikaina.

Inoiz ikusi gabea eta inork espero ez zuena. Eta galdu genuenean ere erakustaldia eman zuten. Hori mantentzeko lana egin behar da etorkizunean, eta eskerrak eman kiroldegira eta Urnietatik urrun jokatu ditugun partidetara joan den herritarrari. Nik esaten dut, baina aurkariak ere esan dute, Ordiziako jokalariek, adibidez.

Eskarmentuaz ari zara. Xehetasun gehiago ematerik bai?

Beno, jokalarik eta talde teknikoaren multzo batean jarri, eta jokalarik bakarrik dauka eskarmentua antzeko igoera faseak jokatzeko, eta jokalarik hori herriko taldeetatik ari da azken urteetan. Talde teknikoari dagokionez ere, ezin



Jokin Jimenez, Urnieta Balerdi Harategia taldeko entrenatzailea.

"Eskarmentu falta izan dugu une jakinetan, eta garesti ordaindu dugu akats hori"

izan ditugu partidak nahi bezala prestatu. Ugeragaren aurkakoa, adibidez, halamoduz prestatu genuen, ez genuelako haien jokoa zehatz ezagutzen. Baina ez da erraza. Ez dago bideorik, eta Ordiziaren aurka jokatu zuten partida bakoariak genuen aztertzeke. Eta han ez zuten jokatu guri azken partidaren 11 gol sartu zizkigun jokalariek. Xehetasun garrantzitsuak dira. Gero sortu den ilusioa, herriaren bultzada handi hori kudeatzen ere kosta egin zaigu. Agian guk geure buruari jarri behar ez genion presioa jarri diogu, urnietarrek eman diguten bultzada handi horri nola edo hala erantzuteko.

Eta zer egingo du Jokin Jimenezek hurrengo denboraldian?

Beno, erabakia hartu gabe dago, hori aurren-aurrena. Hausnartzen ari naiz, zer egin, zer ez... Ezin dut ezer ziurrik

esan. Oso denboraldi intentsoa izan da, gogorra ere bai... Helburua ez zen iritsi garen tokira iristea, eta horrek berarekin halako autoexigentzia ekarri du. Pentsatu egin behar da. Hiru urte dira dagoeneko taldearekin, agian taldeak aldaketa bat behar du... Patxi Moran-deira laguntzaileak ez du jarraituko azken bi urteetako jardunean, lan arazoak direla-eta. Ikusiko da. Nik ez dut taldea bide bazterrean utziko, hori da agindu dezakedana. Ez baldin badago ni ordezkatzeko hautagai sendo, indartsu bat, ni hor egongo naiz, baina taldeko zuzendaritzari esan diot eurek ere hausnartzeko, zer izan daitekeen onena taldearentzat, eta ondoren, denon artean erabaki bat hartuko da.

Noizko izan liteke erabaki hori?

Ez da luzatuko. Ekaina bukaerarako talde teknikoak hurrengo denboraldia prestatzeko lanean hasi behar du: jokalariek, aurre-denboraldia, ze arlo indartu behar diren... Pentsatzen dut ekaina erdirako erabakiren bat edo beste hartu beharko dela.

Egoitz Karracedo, kapitaina

"Bidea hasi baino ez dugu egin; jarraipena eman behar zaio"



Egoitz Karracedo kapitainak ere denboraldiko balantzea egin du, eta bukaerak bukaera, balantzea oso ona dela dio: "nork esango zigun irailan igoera play-offa jokatu genuela... Taldearen bizkarrezurra oso gaztea da, eta fasean gertatutakoa ikasteko erabili behar da, partida estu, zail, gaiztoetan errendimendu hobea emateko". Albokoak harmailetan gertatutako eraldaketa zaindu beharreko faktoretzat jo du, "herriko umeek eskubaloiak jendea erakartzen duela ikusten badute, eskubaloian jokatzeko hautua egingo dutelako, eta taldea aberastu, pixkanaka". Kapitainak udako atsedena gustura hartuko dutela dio, baina hurrengo sasoiari dauka burua dagoeneko: "lan bikaina egin dugu; Gipuzkoako txapeldunorde, gu baino talde askoz indartsuagoen aurka oso neurri ona eman... Igoera fasean kale egin dugu, baina bidearen hasiera baina ez da izan; jarraipena ematea da erronka orain".



KIROL ALBISTEAK

Etxea bizkarrean... eta ibili Giroan



Andoni Urbistondo
Iritzia

Maiatzak 26, Urnieta. Goizeko 09.30ak. Seat Alhambra aparkatu dugu. Lau bizikleta, 8 gupil, dozena bat poltsa, ez dakit zenbat gauza gehiago, zerrikeria nonahi... 'Nondik zatozte?' ezagun batek? "Italiako Girotik, Dolomitatik". Erantzuna: 'Eeeeeeh?'. Aurpegia zimirrez bete dugu, begi-zuloak beldurtzeko modukoak... 16 orduko bidaia nekosoak bukatu da. 1.564 kilometro Canazeitik, Italiako ipar-ekialdeko mugatik. Non-stop, zoezer jan, edan eta depositoa betetzeko izan ezik. Etxeko ohea zain, eta komuna, eta dutxa... eta 'hurrrerengor urtean berriz ezta?'

Erantzunik ez. Baina eztabaida egon, egongo da. Italiako Giroak harrapatu egiten zaituelako. Ez dago lasterketa hark eskaintzen duen menua parekatuko duen beste lasterketarik munduan: mendate garaiak, gogorak, tontor eta gailur ikusgarriak, Heidi, aitona, Laino eta Pedro bizi ziren parajeak zure begien aurrean... eta txirindulariak egurrean. Eta zikloturistik iskitibialak sutan, eta bihotza bere toki-



tik atera beharrean. Italiako tiffosi-ak Jovanottirekin dantzan, eztarria freskatzen, elurraren zuriak inguratuta. Euskaldunen ikurrinak airean, **Michele Scarponi**ren pankartak bazterretan, **Marco Pantani**ren pintadak asfaltoan, **Vincenzo Nibali** squallo-aren flotagailuak tornante-etan, **Omar Fraile** eta **Mikel Landa** hegan Stelvion. **Peio Bilbao** euskal zaletuekin jolasean Umbrail Pass-en... eta Stelvion behe- ra, bihurtuena bihurtuena, tunelari zoru hezea, 80 kilometro orduko abiadura ordu erdian Bormioko Albergo Sileno hoteleko goxotasuna.

Bormiotik Canazeira. Bolzano, Wolkenstein-Val Gardena, Passo Sella, Passo Pordoi... Batzuk gehiago sufritu dute astoaren gainean (edo gozatu), besteok gutxiago sufritu. "**Cacaito Garcia Melero**" k

lau egunetan egindakoari erreparatu, sufritu edo gozatu duen erabakitzeko: Passo Gavia, Passo Stelvio bi aldiz Suitzako kafetegi batean kafea eta opil bategatik 10 euro ordaindu ostean, Mortirolo, Marmolada, Passo Sella eta Passo Pordoi. Zazpi mendate, guztiak 2.000 metrotik gorakoak Mortirolo izan ezik. Mortirolo, munduko mendate tenteenetakoa! Alboan izan ditu "**Asier Stybar**", gupil jarraitzaile finetan finena, "**Jarlinson Gonenaga Pantano**" kakalardoa, eta "**Jan Urbix**" ipurtaundia.

6 egun, 3.500 kilometro, dozena erdi bat mendate, anekdota piloa... Alpeak, Dolomitak. Bi gupil pasioa. Iritsiko da urria. Iritsiko da 101. Giroko ibilbidea jakinarazten duten eguna. Eta tartexu batez, hegan egingo dugu.

Nestor Orozko AEK Larnacara




Zipreko AEK Larnaca futbol taldeak **Nestor Orozko** urnietarra fitxatu du prestatzaile fisiko jardunerako.

Orozko futbolari eta prestatzaile jardunean aritu izan da azken urteetan hainbat taldeetan: UKE, Touring, Irungo Real Union... Azken ikasturtean irakasle lanetan ere aritu da,

heziketara fisikoa irakasten. Urtebeterako kontratua fitxatu du Orozko (32 urte), eta gazte ezaguna da Urnietan, Denontzat kafetegian aritzen baita tarteka aitari laguntzen. Aiurrik hurrengo astean argitaratuko du Orozkoren elkarriketa, Zipre aldera abiatu aurretik.

Zegama-Aizkorri maratoia



Aritz Egeak euskal marka ondu zuen, Super H elkartearen kapela jantzita. Eskulnean, Uxune Tena andoaindarra.

Pasa den igandean korritu zen Zegama-Aizkorri mendi maratoiko XVI. ekitaldia. Eguraldi lehor baina hezearekin. Aipagarria da Mikel Legarreta urnietarraren kasua, antolatu diren Zegama-Aizkorri mendi maratoi guztiak korritu eta bukatu dituen korrikalari bakarretakoa baita. Lehiakortasunak kutsatuta segitzen du, gainera, Legarretak, proba bukatu eta ordu gutxira damu baitzen bost orduetako langa minutu bakar bategatik jaitsi ez zuelako. Uxune Tena izan zen bi herrietako emakume bakarra, eta oso ondo aritu zen.

ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA:

2017-05-28

Andoain

| | | |
|-----|----------|---------------|
| 92 | 04:51:28 | Jon Ugalde |
| 138 | 05:14:20 | Iker Mujika |
| 23 | 05:54:22 | Uxune Tena |
| 211 | 06:17:49 | Sergio Garcia |

Urnieta

| | | |
|-----|----------|-----------------|
| 45 | 04:32:14 | Unai Ezeiza |
| 80 | 04:47:17 | Xuban Ezeiza |
| 117 | 05:01:18 | Mikel Legarreta |
| 172 | 05:37:03 | Borja Granado |

KILOMETRO BERTIKALA:

2017-05-27

Andoain

| | | |
|-----|-------|---------------|
| 101 | 52:44 | Oier Escudero |
|-----|-------|---------------|

Urnieta:

| | | |
|-----|-------|---------------|
| 145 | 57:57 | Ion Rodriguez |
|-----|-------|---------------|

Zanpatuz taldearekin Aniera

Ostegun honetan bukatuko da Zanpatuz mendi taldeak ekainaren 10erako antolatu duen irteerako izena emateko epea. Añamendira izango da txangoa (Anie, 2.507 metro), Belagoatik. Bakoitzak bere jana eraman beharko du,

eta arropa egokia, mendi garaia baita. Irteera goizeko 05:00etan izango da Matxoko autobus geltokitik, eta itzulerara arratseko 18:00ak aldera. Elkarteko bazkide direnek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez direnek, 15.

Leizaran eskubaloit taldea, denboraldi amaierako festa

EKAINAK 3, LARUNBATA 15:45-19:30. Allurralde.

Klubaren eguna ospatuko dute larunbat honetan, Allurralden. Ohikoa den bezala jokalaria, jokalaria-ohi, entre-

natzaile, zuzendaritza taldeko kide eta gurasoen arteko eskubaloit partidak jokatuko dira. Ondoren, Oianumen klubeko afariarekin amaiera emango diote denboraldiari.

Loitegi-Gurutzealde

Jardunaldi baten faltan, estatu mailako trinkete txapelketako finalaurrekoa jokatuko

sailkatu dira Julen Loitegi eta Oier Gurutzealde, Oberena taldea 2-1 garaitu eta gero.

PISTAKO LEHEN TXAPELKETA ANDOINGO UBITARTE ZELAIAN



Ubitarteko zelaian dagoen atletismo pista patinaiarako egokia da, eta hori dela eta Irristaka taldeak joan zen igandean pistako Gipuzkoako lehen txapelketa antolatu zuen.

Aurretik, haur eta gazte txoek erakustaldia eskaini zuten.

Lehen edizioko txapelkunak hauexek dira:

- Nagore Montes (Neskak).
- Iñaki Zubillaga (Mutilak).
- Alain Irazu (Egokitua).

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEMAKIA
Aiurri

Manuel Larremendi
Kultur Baxkaria
MAIATZAK

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOINGO UDALA

Unibertsitatea
43000

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragari:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

EKAINAREN 2TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

■ **"Personal Shopper"**

Ig, 4. 19:30.

Astl, 5. 19:30-22:00.

■ Datorren asteburuan: "Marie Curie".

Dantza

Urnietan, Sarobe

■ **Egape dantza taldekoen** ikasturte amaierako emaldia.

17:00 HH 4-5, LH 1-2.

18:30 LH 3-4-5-6, DBH 1.

Ekainak 1, osteguna.

■ **Gazte Funkykoen** ikasturte amaierako emaldia.

19:30 Sarobe.

Ekainak 2, ostirala.

Andoain

■ **Axeri Dantza**, entseguak San Juan jaietako emanaldirako.

Ekainak 5, 12, 14, 19, 21.

20:00 Ondarreta ikastetxea.

Farmaziak

Andoain

■ **Diaz**. Kale Nagusia, 19.
Gauetz: **Etxebeste** (Hernani).
Maiatzak 27-28.

Urnietan

■ **Aguado** (Astigarraga).
Gauetz: **Etxebeste** (Hernani).
Maiatzak 27-28.

Kultur Astea

Andoain

■ Extremadurako Etxearen eskutik:

Ekainak 3, larunbata

12:30 Suziri jaurtiketa eta harrera Andoaingo Udaleko eta Cacereseko Diputazioko agintariei eta herriko elkartei. Ekitaldiak Udaletxean eta elkar-tearen egoitzan.

16:00 Mahai-jokoak.

Ekainak 4, igandea:

Calva txapelketa, Allurralde kiroldegian.

Lagunarteko bazkaria, Elkarteen egoitzan.

Ekainak 5, astelehena:

18:00 Haurrentzat margoketa lehiaketa, txokolate jatea eta opariak.

Ekainak 6, asteartea:

19:00 Extremadurari buruzko idazketa lehiaketa.

Ekainak 7, asteazkena:

18:00 65 urtetik gorakoentzako otordutxo eta zaharrenari oroigarri banaketa.

Ekainak 8, osteguna:

18:00 Patata tortilla lehiaketa.

19:30 Sardina jatea.

Ekainak 9, ostirala:

20:00 Folklore jaialdia Basteron, talde askoren parte hartzearekin.

Urteurrena

Urnietan

■ **Egape ikastolaren** 50. urteurrenko afaria.

20:30. Oianume jatetxea.

Ekainak 2, ostirala.

Musika

Andoain

■ **Kepa Junkera & Sorginak**, Maletak ikuskizuna.

21:30 Bastero.

Ekainak 3, larunbata.

Urnietan

■ **Lurdes Iriondo Udal musika** eskolako ikasleen emanaldiak Saroben:

Ekainak 6, asteartea:

18:30 Biolina, pianoa.

Ekainak 7, asteazkena:

18:30 Saxofoia, klarineta, bonbardinoa, pianoa.

Ekainak 8, osteguna:

18:30 Pianoa, biolina, tron-peta.

Ekainak 9, ostirala:

18:30 Trikitixa, panderoa.

Deialdia

Andoain

■ **San Juan sua** egin nahi dutenek baimena eskatu beharko dute udaletxeko Atarian. Inprimakian sua egin nahi tokia zehaztu beharko dute, baita arduradunaren datuak ere. Epea: Ekainak 18.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Aiur Garcia Alvarezek 3 urte beteko ditu ekainaren 5ean. Urnietako eta Andoaingo familiaren partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak Iraitxo! Gozatu eta horrelaxe jarraitu! Maite zaitugu! Muxu handi bat etxekoekin partez!

ANDOAIN

ZORIONAK



Itxaso, 20 urte! Egun politta pasa inguruzten zaituzten guztiekin! Muxu potolo bat etxekoekin partetik.

ANDOAIN



OSO ERRAZA eta doakoa. Zorion agurrak Aiurri astekarian: diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus WhatsApp: 619 163 537

ZORIONAK



Ekainaren 2an **Joxe Mari** Ollakarizketak urteak beteko ditu. Urtea askoan Joxe Mari! Ondo pasa. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Julen maitia! Jada 8 urte beteko dituzu. Oso ondo pasa eguna! Muxu handi bat etxekoekin partetik!!

URNIETA

ZORIONAK



Zorionak printsesa! Hamar urte bete dituzu, **Nora**. Muxu potolo bat aita, ama eta Nago-reren partetik!!

URNIETA

ZORIONAK



Zorionak Tolo! Aste earki pasa AstoTrek-ean! Muxu pila zure lagunak eta familiaren partetik!

ANDOAIN

San Juan jaietako kartela

Epaimahaia bildu ondoren, hauek izan dira aurtengo irabazleak. Gazteen mailan lehen saria hutsik geratu da:

Helduak:

1. Juanan Lazkano.
2. Sergio Vallejo.

Gaztetxoak:

2. Maria Arabaolaza.

Lehiaketara aurkeztutako lanak ekainaren 16tik 26ra Urigain etxean ikusgai egongo dira.



IGERIKETAKO ESKOLARTEKO TXAPELKETA GASTEIZEN



Joan zen igandean Eneko Elizasu eta Nerea Santos Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak Gipuzkoako Selektioarekin Euskadiko XXXVI Eskolarteko Txapelketan parte hartzen aritu ziren. Bikain aritu ziren eskualdeko igerilariak eta marka askoren hobekuntza eta dominak ekarri zituzten handik.

Haurren euskal jaialdia, igandean Andoainen

Euskal folkloreari tartea eman eta Euskal Herriko probintzia desberdinetako taldeen arteko harremanak areagotu nahi ditu Urki dantzak taldeak, urtero antolatzen duen jaialdiarekin.

PARTE HARTZAILEAK:

Anoeta, Aduna, Zizurkil, Amasa-Vilabona eta Andoaingo txistulariak, Zarauzko eta Andoaingo trikitilariak, Lizarran, Berriz, Ustaritz, Deba,

Lasarte-Oria eta Andoaingo dantzariak, Amasa-Vilabona musikiariak, Soinuak musika eskolako kideak.

EKAINAK 4, IGANDEA

11:15 Kalejira herrian barrera.

13:00 Jaialdi nagusia Goikoplazan.

14:00 Bazkaria.

17:00 Plaza-dantzak, denentzat.

18:00 Dantzaldia: Alaiki.